

2006an heriotzak %4,7 gutxitu ziren

Hazkunde begetatiboa 5ez biderkatu da 2006an

2006an, 18.507 lagun hil ziren Euskal AEn, 9.810 gizonezko eta 8.697 emakumezko. Zifra horretan, % 4,7ko gutxitzea gertatu zen, 2005. urtearen aldean, EUSTATen datuen arabera.

Jaiotzak heriotzak baino 1.536 gehiago izan ziren; horren ondorioz, hazkunde begetatiboa aurreko urtekoa baino bost aldiz handiagoa izan zen. Antzeko zifraren bat izan zen azken urtea 1989 izan zen. Halere, Bizkaiak saldo begetatibo negatiboarekin segitzen du (-274), baina 2005ean baino 2,5 aldiz gutxiago. Arabak 2z biderkatzen du saldoa (+671 pertsona) eta Gipuzkoak 1,7z, (+1.139).

Hildakoen batez besteko adina 76,6 urtekoa izan zen; 1990ean, aldiz, 71 urtekoa zen, hots, 5,6 urteko gehikuntza jazo da. Sexuaren arabera, gizonezkoak batez beste 72,9 urterekin hil ziren eta emakumeak, berriz, 80,9 urterekin.

Haurren heriotza-tasari dagokionez, mila jaiotako bakoitzeko, urtebetetik beherako 3,3 hil ziren. Jaioberrien heriotza-tasak, bizitzako lehen 28 egunetan hiltzen direnenak, 49 heriotza zenbatu zituen; 40 jaioberrien heriotza goiztiarrek eragin zituzten, lehen astean gertatzen diren heriotzek; horietarik, 20 lehen 24 orduetan. Urtebetetik beherakoen artean, neskato (37) gehiago hiltzen da mutiko (29) baino.


Zirkulazio-aparatuko gaixotasunek eragin zituzten 2006an izandako heriotzen % 30,3, hots, 5.615 hildako; tumoreek %30,2 (5.580 hildako), eta hirugarren tokian, urrunago bada ere, arnas aparatuko gaixotasunek %9,4 (1.739).

Heriotza-arrazoiaren banaketa ez da berdina sexuaren arabera; izan ere, gizonezkoen artean, tumoreak zirkulazio-aparatuko gaixotasunen gainetik daude; emakumezkoen artean, lehen arrazoa gaixotasun kardiobaskularrak dira, eta bigarren tokian, tumoreak daude.

Halaber, adinaren arabera ere izan ziren aldeak heriotza-kausetan. Urtebetetik beherakoen artean, heriotza ohikoenak jaiotza-inguruko gaixotasunek eta malformazio kongenitoek eragiten zituzten; 34 urte arte, heriotza-kausa nagusiak kanpokoak izan ziren; 35 urtetik 74 urtera, tumoreak, eta 75 urtetik aurrera, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak.

Kanpo-arrazoiengatik heriotzen artean, zirkulazio-istripuak (144 hildako) nabarmentzen dira, 2005aren aldean %20ko murrizketa badago ere; eta suizidioak 148 izan ziren. Bi kasuetan gizonezko gehiago hiltzen dira: 108 gizon eta 36 emakume zirkulazio-istripuetan eta 115 gizon eta 33 emakume bere buruaz beste eginda.

1. grafikoa: Heriotzak, kausaren eta sexuaren arabera (%)



1. taula: Heriotzak sexuka, kausaren arabera.

	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	Kop.	%	Kop.	%
Kausa guztiak	9.810		8.697	
Gaixotasun infekzioso eta parasitarioak	211	2,2	182	2,1
Tumoreak	3.561	36,3	2.019	23,2
Guruin endrokinoetako, elikaduraren eta metabolismoaren gaixotasunak	221	2,3	311	3,6
Trastorno mentalak eta portaeraren trastornoak	264	2,7	561	6,5
Nerbio-sistemako gaixotasunak	383	3,9	556	6,4
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	2.664	27,2	2.951	33,9
Arnas sistemako gaixotasunak	1.000	10,2	739	8,5
Txegoste-sistemako gaixotasunak	532	5,4	417	4,8
Sistema genitourinarioko gaixotasunak	170	1,7	210	2,4
Zantzu, zeinu eta aurkikuntza anormal klinikoak eta laborategikoak	196	2,0	315	3,6
Kanpoko heriotza-arrazoiak	495	5,0	202	2,3
Beste batzuk	113	1,2	234	2,7

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp